

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Santa Ageda mutilak gertu /8

LANAK

Udaletxeko armarrria berrituko dute /9

LEINTZ GATZAGA

Ohitura zaharra errekuperatu guran /10

2003. URTEKO UDAL AURREKONTUAK

Astlehenean aurkeztu ziren aurtengo udal aurrekontuak, baita onartu ere. Udalari dagokion aurrekontua zazpi milioi eurotik gorakoa da, eta horri, Bihergintzari dagokiona eta Urats-Gain zaharren egoitzari dagokiona batu behar zaizkio. Beraz, guztira **7.484.559** euro dira.

Batasunarekin batera udalbatzarra osatzen duen EAJ/EA alderdia ere pozik agertu zen aurkeztutako aurrekontuekin, eta aldeko botoa ematea erabaki zuen.



GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 1
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 2
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskalgia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkartea	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxio ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA

Arrasate

OHARRAK

EPEH ARETXABALETAKO PLATAFORMAREN KALE AGERRALDIA

Gaur, egubakoitza, *Barandalla etxera!* 92. artikulua orain lelopean manifestazioa egingo dute Durana kalean, 19:00etan. Manifestazioa EPEH Aretxabaletako plataformak antolatu du.

SAN BLAS EGUNA

Astlehenean, otsailaren 3an, San Blas eguna ospatuko dute Apotza-Etxebarriko Sailunte ermitan. 10:30ean, meza izango da eta horren ondoren, jakiak bedeinkatuko dituzte.

SANTA AGEDA BEZPERA ETA EGUNA

Martitzenean, otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera ospatuko dute aurtengo Santa Ageda mutilek. Baserrietara joango dira kantuan eta eskean. Hurrengo egunean, Santa Ageda eguna, kalean ibiliko dira kantuan eta batzen. 19:00etan, berriz, dantzan egingo dute Herriko Plazan. Aratuste-domeka bitartean, gainera, domekero egingo dute dantzan Herriko Plazan.

ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Aitor Caballero
30ean, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Josu Aizpurua
30ean, urte 2. Zorionak, etxeko eta Pausokako lagunaren partetik.



ARETXABALETA
Laura Fabian
31n, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Gaizka Pérez
2an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen partetik.



ARETXABALETA
Ainara Zugasti
4an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Puri Beltran de Heredia
4an. Zorionak eta muxu handi bat. Xabier, Leire eta Maria.

MARIA JESUS CREATIVO

ARGAZKIGINTZA ESTUDIOA

Modazko Book-ak

Ezfeiak Jaunartzeak Publizitateko Argazkiak

Zaharberriak, Errebelatuak, Argazki Digitala, eta Karneerako Argazkiak.

ARABA IBILBIDEA 27 1- D ARETXABALETA (GIPUZKOA)
943 771255 - 656 732463 shibat@wanadoo.es

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Bidaide'

Liburu hone-tan, urtean barrena *Euskaldunon Egunkaria*-ko *Mundu mira* gehigarrian *Bidaide* go-gaide izenez atera diren mendi ibilbideak batu dituzte. Lau egile nagusi eta hainbat kolaboratzaile izan ditu liburuak.



BIDAIDE: EUSKAL HERRIA MENDIZ MENDI, BIDEZ BIDE

Egunkaria, 2002
260 orrialde

Denera, berrogeita hamar ibilbide dira; Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan zehar eginiko hamarna bide. Tartean, irteera errazak eta zailagoak aurkituko dituzue, eta batzuetan, leku berean ibilbide bat baino gehiago proposatzen dute. Ibilbide bakoitza azaltzeaz gain, datu jakingarri batzuk ere ematen dituzte; non jan eta lo egin, esaterako.

Liburuaren azken atalean, aterpe, landa turismoko etxe, kanpin, mendi talde, mendiaren gaineko webgune, eta abarren informazioa ematen du.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

KURTZEBARRI ESKOLA
2-12 urte bitartekoentzat



KURTZEBARRI BHI
12-14 urte bitartekoentzat



MATRIKULA EPEA: otsailaren 3tik 15era arte



- Integratzailea: euskal kultura garatzen du, eta beste kulturak era egokian geureganatu eta garatzen ditugu.
- Pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditugu.
- Sortzailea eta autonomia.
- Ikastetxeen arteko loturak sustatzen ditugu.



Telefonoa / Faxe: 943 79 00 49
e-maila: kurtzeba@teleline.es

Telefonoa / Faxe: 943 79 57 40
e-maila: 012945aa@hezkuntza.net



Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa



Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa


ATREBENTZIAEZPADA/ Gaztetxe itxi gure dau Udalak, eta arginderra moztu dutzie. Ze uste dozu?



AITOR FERNÁNDEZ
Ikasle




CANO
Langillie




FIDEL ANDRÉS
Langillie



JENNY ALBERDI
Ikasle



IZASKUN ZUBIZARRETA
Langillie



EIDER GOÑI
Langillie

Ixtie ez jat ondo pentsetan. Ni neu ez naz faten, baiñe arrebie bai. Eta gazte batzuk batzeko lekua bada, zabalik egon biherko leuke. Obrak egin daixiela, eta ganoraz jarri lekue.

Ez daukiela zertan itxi. Lagun bat han inguruen bizi da, eta ez da sekule zaratie dala-eta kejavu. Zurrumuru batzuk esaten dauenez, bere taldeko gazteiek sartu gure dittu alkatiek.

Ez dakit zelako jentie dabilen gaztetxién, baiñe ez dot uste itxi biherko litzakeenik. Politika alde batera itxi, eta kultura girue bultzetu biherko leukie. Ia berba egindde konponketan dan...

Ez leuke itxi biherko. Dauen lekuen ez badau ondo, aldatu daixiela, baiñe ixtie ez jat ondo pentsetan. Gaztetxeekuek be zabalik euki gure badaue, ganora haundixague jarri daixiela.

Ez dakit zein dan gaztetxiaren eta Udalaren arteko arazue, baiñe konponketan ahaleginddu biherko litzakez. Gaztetxie egotie ondo ikusten dot; berba egindde konponduko da.

Ez dakit ze pasetan dan gaztetxiékin, baiñe berba egindde konpondu biherko litzakeela uste dot. Gazteiek batzeko leku bat egotie ondo ikusten dot, baiñe ez edozein modutan.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZABORRA EDUKIONTZITIK KANPO Egia da batzuetan edukiontziak gainezka egoten direla eta zaborra kanpoan utzi beharra izaten dugula. Baina argazkian azaltzen den edukiontziak bazuen lekua barruan. Zelan ez zuen edukiko, ba, argazkia eguerdian atera nuen-eta! Txistua, hortaz, zaborra ordutegitik kanpo atera eta, gainera, erdia edukiontzitik kanpo uzten duenari. /A. L.

ETABARRUAN...

ASTEKO GAIA /4

Udal aurrekontuak

Zazpi milioi eurotik gorako aurrekontuak onartu zituzten asteleheneko osoko bilkuran.

GAZTERIA /5

Gaztetxea pil-pilean

Udalak argindarra moztu zien astelehenean, baina gazteek ez dute gaztetxetik alde egin gura.

KIROLAK /6

Udaberriko Pilota Torneoa

Nagusiek irabazi egin zituzten partidu biak; gazteei, berriaz, galtzea tokatu zitzaizen.

ASTEKODATUA

11

URTE BETE DITU KEPA URRAK KARTZELAN

Urtarrilaren 29an, Kepa Urrak 11 urte bete zituen kartzelan. Gaur egun, Curtisen dago (Coruña), txapeoan, gainera. Horren haritik, otsailaren 13an, urteak bete-ko ditu Kepa Urrak.

BESTEKEESANA

“Gasteizera bilduko diren ikusleek dioparama saio nahiko ezohikoa aurkituko dute Hire Himalaya-n.


Mendiko igoera gutxi ikusten dira bertan, anaiaren istripuaren ondorioz sortu zaizkidan kontraesanak azaldu nahi izan baititu bereziki. Ez da ohiko proiektio bat izango, nire gogoeten ondorioa baizik.

Anaia eta biok duela 11 urte hasi ginen bidaietako irudiak jasotzen, eta urte horietan guztietan bildutakoaren aukeraketa baten ondorioa da Hire Himalaya: Pumorin hasi eta Annapurnara arteko ibilbidean jasotako irudia, bai bideoan eta bai diapositibetan.

Koldo Izagirre idazlearen eta Kepa Gonzalez ekoizlearen laguntza paregabea izan dut.

ALBERTO IÑURRATEGI
‘Euskaldunon Egunkaria’/03-01-22

HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



Ilbeltza

Normaliñ hau berbiau ez dot erabilten urtarrila esateko, baine aurtenguzaz oso egoki datorrela uste dot.

Hasteko, urte barri ona danoi!! Sartu gare beste hilabete baten be, batzundako hau urtarrilekuau aldapie izeten sartzen, baine dakidan bakarra zera da: ikaslien garai gogor, estresante eta latza dala (beste hamaika adjetibo be jarriko nituzke).

Ez dakit zuzen asmatu ete doten ilbeltza ipintehoneaz, izenbe aurreko astietako baten, baltzan beste muturreko kolore be ikusi dalako tontor eta ez hain tontorretan. Honazkero, bat baino gehixau akordauko zan ilbeltzak kostara erueten nauela eta ez egualdixaz berba eitera.

Baltzak die bai, Euskal Herriko kostaldera heldu dien olixo mantxak. Izerdi asko bota arren, ez da lortu horri aurre eiterik, eta okerrena da erantzunkizunek hartu bihe dauie-

nak ondio oso zuri dazela, in albis, egoeriaz oso ondo akordau barik. Txaloketakue da ostera, jentiek erakutsi dauen jarrerie, baine zoritxarrez ez da nahikue, beste gauza batzuetan moduen.

Baltza da baite Bautista Barandalla euskal preso politi-

“Baltza da baite Bautista Barandalla euskal preso politikuek bizi dauen egoerie. Hantxe dau zulo baltzien sartute”

kuek bizi dauen egorie. Hantxe dau zulo baltzien sartute, inungo argi izpirik ikusten ez dauela, eta bere bizixe poliki-poliki galduaz. Hamaika ekimen, manifa eta bestelako ein dien arren ondio be etxarriarrak ez

dauko bere bizixen azken egunek askatasunien pasetako aukerarik. Aretxagazetako kantoitik doiekixola besarkada bat eta animuek bere gaixotasun latza aurrera eruteko.

Ez dot gure hau txokotxuau baltz bihurtetarik. Eguzkixek Atxabaltako zeru gainien be zuleketan dau eta eskerrak! Besteik barik, denpora hobiauek laister ezautuko dittugu, eta horreik ondo aprobetxau!!!

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Magoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Gofo Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Jaiak eta jokoak

Negu hotza heldu zaigu berriro ere. Giro hotza da gurean, eta horrelakoetan jokoan egitea onena. Elkarrekin mus txapelketak jokatzeko hasi dira. Urbaltzen Aitor Irure eta Alex Ulecia izan dira txapelak. Iaz, Elkarrekin Mus Txapelketan ere eurak izan ziren nagusi, eta aurten ere hortxe egon gura dute. Elkarrekin, oster, bada berrikuntzarik. Muru Alde elkarrekin, laster, emakumeok ere jokuan ibiliko gara, bazkide egiteko aukera izango baitugu.

Jokoan batzuk, baina jaietan guztiok sartuko gara. San Blas eta Santa Ageda gainean ditugu. Ez ahaztu astelehenean San Blasera janaria eramatea. Eta hurrengo egunetan Santa Ageda kanta entzungo da baserri eta kallean. "Santa Ageda bezpera degu..."

UDAL AURREKONTUA/ Inbertsio handienak lursailak erosteko eta ur hodian saneamendu lanak egiteko izango dira

Aho batez onartu zuten astelehenean zazpi milioi eurotik gorako udal aurrekontua

MIRARI ALTUBE

Astelehenean egindako osoko bilkuran onartu zituzten 2003ko udal aurrekontuak. Udalbatzarra osatzen duten taldeen artean tira-birak izan badira ere, azkenean ez da aurrekontuak onartzeko arazorik egon. PPko zinegotziak aurkako botoa eman zien.

Udalbatzarra osatzen duten Bata-suneko eta EAJ/EAKo zinegotzietan botoekin onartu zituzten astelehenean aurtengo udal aurrekontuak. Maria Rosario Arrue PPko zinegotziak ezezkoa eman zien, eta Iñaki Pierrugues PSEko zinegotzia ez zen agertu.

PROIEKTUAK ETA SANEAMENDUAK

7.109.805 euroko aurrekontua zehaztu dute zinegotziek 2003-rako. Eta horri, Urats-Gain zaharren egoitzari dagozkion 582.436 euroak eta Bihargintzari dagozkion 85.911 euroak gehitu behar zaizkio. Hortaz, denera, ia zazpi milioi eta erdiko aurrekontua onartu zuten. Anjel Bergaretxe alkatearen esanetan, ez dago aparteko inbertsiorik, ezta proiektu ikusgaririk ere. Aipatzekoa da, ordea, kultura azpiegitura sendotzeko egingo duten ahalegina. Kultura aretoaren proiektua betetzerik ez dagoela ikusita -EAJ/EA alderdia ez dagoelako ados-, beste bide batetik jo dute; kultura eragileekin zuzenean berba egitea pentsatu dute, eta ikusiko dute zeintzuk

2003rako aurrekontua

Udala	7.109.805 €
Urats-Gain zaharren egoitza	582.436 €
Aretxabaletako Bihargintza SA	85.911 €
Udal Euskaltegiari aportazioa	84.879 €

UDAL AURREKONTU OSOA
7.484.559 €

Aurrekontua, batzordea

Auzoak	171.246 €
Zerbitzuak	1.157.894 €
Lehendakaritza	1.911.019 €
Ekonomi garapena	1.004.489 €
Kultura	227.601 €
Kirolak	233.639 €
Hirigintza	1.036.921 €
Hezkuntza	80.212 €
Gizarte Ongizatea	480.772 €
Ogasuna	385.419 €
Euskara	245.908 €
Idazkaritza	141.593 €
KIUB	8.850 €
Udaltzaingoa	24.241 €

Inbertsio aipagarrienak

Lursailen erosketa	750.105 €
Saneamenduak	456.408 €
Industri pabilioia	310.000 €
Copreci ingurua txukundu	211.000 €
Lausittako plaza egokitu	85.000 €
Proiektuak	72.000 €
Galartza-Gellaoko bideak	46.000 €
Larrino eliza ingurua	42.100 €
Txintxaunak egokitu	30.000 €
Beste batzuk	223.594 €
GUZTIRA	2.226.207 €

diren lehentasunak, zeintzuk premiak eta zeintzuk Udalak bere gain har ditzakeen kostuak. Horrela, bada, proiektuak egi-

teko 72.000 euro zehaztu dituzte. Eta proiektu horren barruan sartuko da Herriko Plazaren azpian aparkalekuak egiteko modurik

dagoen edo ez aztertzea.

Ur hornikuntzen saneamendu planak ere diru kopuru handia jaso du: 456.408 euro. Aurten, Aralar eta Zaraia kaleetako ur-hodiak berrikuntza dute. Denera, 900.000 eurotik gorako aurrekontua dute lanek; horregatik, aurten, lehen zatia egingo dute eta datorren urtean, bigarrena.

Hala ere, inbertsiorik handiena lursailak erosteko izango da.

EAJ/EA, POZIK, AURREKONTUEKIN

EAJ/EA alderdiko buru Karmelo Azkoitia pozik azaldu zen astelehenean onartutako aurrekontuekin. Batetik, Batasunak adostasuna lortzeko jarritako borondatea eskertu zuen; eta, bestetik, aurtengo aurrekontuak iazkoak baino hobeak direla esan zuen.

Garzónen errekerimendua

Urtarrilaren 17an jaso zuten Aretxabaletako Udalean Garzónen errekerimendua. Hainbat eskaera egiten ziren idatzian; tartean, HBko, EHko eta Batasuneko zinegotziek parte hartutako osoko bilkuren aktak emateko. Hala, astelehenean, hilak 27, eskatutakoa jasotzera etorri ziren. Alkateak, ordea, denbora gehiago behar zutela esan zien. Anjelen esanetan, hain epe motzean eskatutako informazio guztia batzeak Udaleko jarduna geldiaraziko luke. Eta eskaera batzuk ulertu ere ez dituela egiten gaineratu zuen.

Ikusi egin behar orain zer pasatuko den, baina Anjelek badaki Garzónekin edozer gerta daitekeela.

Lasai

Mirian Manteca masajista

Lezama Zentru Komertziala
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
 - Kraneala
 - Estrukturala
 - Funtzionala
- Lotura muskularrak

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

J.J. IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

Martin

erloju-denda

Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

Mobiliario

ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana, 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14



Bainuetxeko ur sufretsua, edateko txarra

Gipuzkoako Ogasun Publikoaren laborategietan eginiko analisisen arabera, Bainuetxean dagoen ur sufretsua ez ditu edateko ur izateko baldintza guztiak betetzen. Hori dela eta, *Ur ez edangarria* jarri dute hango iturburuan. 1843an zabaldu zuten Ibarako Bainuetxea, eta ur sufretsua helburu terapeutikoe-tarako erabili izan da urtetan. Orain, berriz, edateko txarra da. Udalak, berriz, esan du ez dagoela arrazoirik uraren ezau-garriak aldatu egin direla esateko. /M.A.

LABUR

Kurtzebarri Eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek Antzerki Astea antolatu dute

Kurtzebarri Eskolako hainbat ikasle hizkuntza lantegiak egiten ibili dira. Besteak beste, bertsoak, kantuek eta antzezlanak egin dituzte eskola horietan. Orain, egindako lana aprobetxatu

guran, Antzerki Astea antolatu dute. Hala, astelehenetik aurrera jendaurreko ekitaldiak egingo dituzte. Ikasleendako 15:30ean egingo dituzte ekitaldiok eta gurasoendako, 18:00etan.

GAZTERIA/ Udalak kuartela uzteko emandako epea joan den egubakoitzean bukatu zen

Udalak argindarra moztu dio gaztetxeari

MIRARI ALTUBE

Urtarrilaren 24ra arteko epea eman zien Udalak gaztetxeko arduradunei kuartela uzteko. Eta bete ezean argindarra moztuko ziela esan zien. Esan eta egin. Gaztetxeko arduradunek ez daukate alde egiteko asmorik, eta Udalak argindarra moztu zien astelehenean.


Aspertuta dago Aretxabaletako Udala gaztetxearen auziarekin, eta, irtenbidea topatu guran, kuartelean duten egoitza urtarrilaren 24a baino lehen uzteko agindua eman zien gazteei. Gaztetxeko arduradunek, ostera, ez dute lokala uzteko asmorik. Horren ondorioz, argindarra moztu zien Udalak astelehenean.

KEXAK ETA HUTSEGITEAK

Alkatearen esanetan, azken hila-beteotan argindarraren fakturak ez dira garaiz ordaindu; Udalaren eta gaztetxearen artean ordutegiaren gainean erabakitakoa ere ez da bete; eta suteetan erabiltzeko dagoen eskailera biltegi bihurtu dute; herritarren aldetik idatzizko kexarik heldu ez bada ere, hainbat kexa jaso dituzte, ahoz, udaletxean. Hori dela eta, alkateak kuartela uzteko agindua bidali zien urtarrilaren 20an.

GAZTETXEAN JENDE BERRIA

Gaztetxeko arduradunek ere badute zeresana auzi horren gainean. Azken hilabeteotan, gazte-



MIRARI ALTUBE

Alkatearen eta herriaren beraren kontrako kartela jarri zuten gaztetxeko atean.

txearen ardura eskuz aldatu da, eta arduradun berrien esanetan, ez zien inork arauen berririk eman. Orain, jakinaren gainean egonda, betetzeko asmoa dutela esan zuten.

Astelehenean, argindarra moztu zitelako ikusita, haserre ziren gaztetxeko arduradunak, eta alkatearen eta herriaren beraren aurkako berbak zituen kartela jarri zuten gaztetxeko atean. Astelehenean eta martitzenean

batzarrak egin ostean, hainbat kartel jarri zituzten kaleetan, eta aste bukaeran manifestazioen bat egiteko gertu azaldu ziren.

Alkateak dio ez duela gaztetxeko arduradunekin berba egingo, harik eta haiek kuarteletik alde egiten ez duten arte; eta gazteek, berriz, diote ez direla joango, harik eta alkatearekin berba egiten ez duten arte. Hortaz, konponbide gaitza dauka auziak. Ikusi egin behar zelan bukatzen den.

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, • 943 79 59 05
ARETXABALETA

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

IBARRA
estankoa

PRENTSA ETA IKASMATERIALA
Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
ARETXABALETA
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

IRIARTE

Umeen denda
Helduen lentzeria

Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

OSKAR
GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

Iber

★ Loteria ★
✿ Paperdenda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

PILOTA


Herriko pilotariek gogoz hasi zuten Udaberriko Pilota Torneoa

Nagusien mailan jokaturako partidu biak irabazi zituzten; gazteek, aldiz, galdu egin zuten

AMAGIOIA LASAGABASTER

Joan den zapatuan, hilak 25, jokatu zituzten herriko pilotariek Udaberriko Pilota Torneo-ko aurreneko partiduak. Hoyonek eta Uriartek galdu egin zuten, baina nagusiek -Errasti anaiek batetik eta Lasagabasterrek eta Altzolak bestetik- irabazi egin zuten.

Dagoeneko abian da Udaberriko Pilota Torneoa. Joan den zapatuan, urtarrilak 25, herriko pilotariek hiru partidu jokatu zituzten, eta horietatik bitan nagusi izan ziren. Lehenengo neurketan, Hoyonek eta Uriartek partidu gogorra jokatu zuten. Hasieratik lau pilotariek indar handia eta joko ona erakutsi zuten. Azkenean, baina, piloteo handiko partidua jokatu ostean, Urrezola eta Etxebeste alzatarrak nagusi izan ziren (18-22). Hurrengo partidua Errasti anaiek jokatu zuten, Tolosako Bellozoren eta Akortaren aurka. Errasti anaiek euren neurriko pilotariek inuritu zituzten indarrak, eta partidua irabazteko esfortzu handia egin behar izan zuten (22-17). Azkenik, Lasagabasterrek eta Altzolak erraz



ALTZOLAK ETA LASAGABASTERREK ERRAZ MENDERATU ZITUZTEN TOLOSAKO PILOTARIAK.

gabasterrek eta Altzolak erraz irabazi zieten Tolosako Aurrera taldeko pilotariei (22-7).

HELBURUAK

Oraingo zapatuan, otsailak 1, aretxabalarrek kanpoan jokatu

dituzte partiduak. Bigarren jardunaldia besterik ez da izango, baina herriko pilotariek badakite aurreneko partiduak irabaztea oso inportantea dela. Aretxabalarrek ez dute sekula irabazi Udaberriko Pilota Torneoa.

XAKEA

Arlutz Xake Taldeko jokalariek ezin izan zieten Santurtziko xakelariei irabazi

Aretxabalako xakelariek ez zuten berehalakoan amore eman, baina ahalegin guztiak antzuak izan ziren, eta azkenean, galdu egin zuten Santurtziren aurka (2,5-1,5). Hala, Arlutz Xake Taldeak ligako sailkapenean postu bat behera egin du, eta orain, bigarren dago, 17 punturekin. Bihar, zapatua, Mikel Gurea taldeko xakelarien aurka jokatuko dute, 16:00etan, Arlutzen egoitza.

ESKI IRTEERA

Murrukixoko Mendizale Elkarteak eski irteera antolatu du, Luz Ardidenera

Murrukixoko Mendizale Elkarteak eski irteera antolatu du. Luz Ardidenera (Frantzia) joango dira, otsailaren 22an eta 23an. Izenematea, Murrukixoko egoitza, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara bitartean. Murrukixoko Mendizale Elkarteak bazkideek 85 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, berriz, 90 euro. Ikasleei bost euroko deskontua egingo diete.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Gure Txokoa
Preferentea.
Domeka. 16:30. Ibarra.
UDA-Euskalduna
Gazteen Euskal Liga.
Zapatua. 17:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.(2)-Ilunbe (2)
Gazteak.
Zapatua. 18:00. Azpeitian.
Aretxab.(2)-Urretxu (2)
Nagusiak.
Egubakoitza. 18:00. Urretxun.

EMAITZAK

FUTBOLA

Berio 1 UDA 1
Preferentea.
Ilintxa 0 UDA 3
Gazteen Euskal Liga.
UDA 8 Ikasberri 2
Bigarren mailako erregionala.

UDA/Almen (b) 1 Behobia 1
Bigarren mailako gazteak.
Urki 4 UDA 4
Bigarren mailako kadeteak.
UDA 5 Intxurre 0
Lehenengo mailako kadeteak.

PILOTA

Aretxab. 18 Alzatarrak 22
Bigarren mailako gazteak.
Aretxab. 22 Tolosa 17
Nagusiak.
Aretxab. 22 Tolosa 7
Nagusiak

03-04 ikasturterako aurrematrikulazioa zabalik 0-3 urte bitarteko Udal Haur Eskolan



- Epea: otsailaren 3tik otsailaren 14ra
- Non: JOSE ARANAN (ALMEN)

San Pedro auzoa z/g
Tel.: 943 71 44 86

Instalazioak ikusi edo entrebista pertsonala egin nahi izanez gero, aurretik telefonoz abisatu.



JOSE ARANA
ESKOLIATZAKO
IKASTOLA



ESKOLIATZAKO
UDALA

HEZKUNTZA
SAILA

Okindegia - Gozotegia
Aretxabaleta
Aretxabaleta okindegia
Aretxabaleta
Okindegia - Gozotegia
Aretxabaleta
Okindegia - Gozotegia
Aretxabaleta
On egin San Blasetan!



Okindegia - Gozotegia
Aretxabaleta
Loramendi 6 • 943 77 17 19
Aretxabaleta
Basabe 2 • 943 77 00 81
ARETXABALETA
Bertako okina
Okindegia - Gozotegia
Aretxabaleta

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 31 / 111. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Santa Ageda mutilak datozen egunotan daukaten onena emateko gertu daude

AINTZANE GARDOKI

Aurten, 25 Santa Ageda mutil dira; iaz baino sei gehiago. Azkeneko asteotan gogor ibili dira dantzak entseatzen: desafioa, banakoa, agurra, arin-arina eta fandangoa ikasi dituzte. Mainer Otamendi eta beste hainbat herritar arduratu dira dantzak erakustez.

Gerra aurretik dagoeneko ospatzen zuten Santa Ageda eguna soldadutzara joaten ziren eskoria-tzarrek. Dena dela, herritar batzuen esanetan, joan den aspaldiko Santa Ageda egunek ez dute zerikusirik lehengoekin. Azkeneko urteotan ohitura bat baino gehiago aldatu den dudarik ez dago, behintzat: "Azkenaldian, bezperan eta egunean bertan bakarrik irten beharrean, egun bat lehenago irteteko ohitura ere hartu dute kintoei. Aurten, aldiz, bezperan Gatzagan eta auzoetako baserrietan eta Santa Ageda egunean herrian bertan ibiliko dira", esan digu azkeneko ia 10 urteotan mutilak dantzatzeko dien Mainer Otamendik.

Zapatila zuriak kordel gorriekin eta sorbaldan loredun zapi



Gazteak herriko gaztetxean elkartu dira dantzak ikasteko, astean hirutan.

handia ere gero eta gutxiago ikusten dira azkeneko urteotan: "Gu urtero ahalegintzen gara Santa Ageda mutilak behar den moduko zapatilekin eta San Fermine-

tako painelu gorria etxean utzita irten daitezten, baina gaitza da. Dena dela, eta esanak esan, herritarrek ondo erantzuten diete kintoei, jende ugari batzen da-eta pla-

zan. Mutilak ahalegina egiten dute. Dena ez da txarra". Desafioa, banakoa, agurra, arin-arina eta fandangoa dantzatzeko dituzte datorren eguaztenean eta domekan.

Gerra aurretik dagoeneko ospatzen zuten Santa Ageda eguna soldadutzara joaten ziren mutilak

"Aurten, bezperan Gatzagan eta baserrietan eta egunean bertan herrian ibiliko dira"

"Dena dela, eta esanak esan, herritarrek ondo erantzuten diete kintoei"



Kultura etxean lanak hasi dituzte

Herrian abian den Irisgarritasun Planaren barruan kokatzen dira kultura etxean egiten hasi diren lanak. Zutarri eraikuntza enpresa dabil kultura etxean igogailua jartzen, eta lehenengo eta bigarren solairuetako komunak ere berrituko dituzte. Horrez gain, ondoan dauden ongizateko bulegoak ere berrituko dituzte. Irisgarritasun Planak herrian dauden arkitektura-trabak txikitu eta guztiondako herri erosoagoa egitea du helburu. Lauzpabost hilabete iraungo dute lanak. /A.G.

LABUR

Olazar elkarteak 'Tai Chi' ikastaroak antolatu ditu

Datorren astean, *Tai Chi* ikastaroa hasiko dute herriko erretiratuek. Olazar elkarteak antolatu du ikastaroa. Orain arte, sasoiaren egiteko gimnasia egiteko aukera izan dute, baina herritar batzuek Arrasaten *Tai Chi* egiten zutela-eta, Olazarrean jo zuten ea horrelakorik antolatzerik baizeukaten. Udalak lokala utziko die *Tai Chi* egin gura duten 60 urtetik gorako herritarrei. Eta dagoeneko taldetxo bat gertu dago. Sei euro ordaindu beharko dituzte hilero.

SAN MIGELEN IRUDIA BERRITUKO DUTE DATOZEN ASTEOTAN

Udaletxe gainean dagoen armarrria berrituko du Bilboko etxe batek

AINTZANE GARDOKI

Udaletxeko lanak amaitzear daude. Edorta Zubizarreta alkateak esan digunez, barruko ia lan gehienak amaituta daude, eta, haren iritziz, apirilera udaletxea gertu egongo da. Berrikuntza lanak egin ondoren, eraikinaren gainean dagoen San Migel irudia duen armarrria ere berrituko dute datozen asteotan. Astelehenean ziren hastekoak Bilboko Restauradores Siglo XXI enpresako langileak armarrria berritzen, baina eguraldi txarrak atzeratu egin ditu lanok. Harrizkoa da armarrria. Lanok zuzentzen dituen Eusebio Corcuera esan digu armarrria zelan dagoen jakiteko azterlanak egingo dituztela lehenengo. Corcuera gaineratu du armarrria zelan dagoen ikusitakoan dagokion tratamendua emango diotela eta horren ondoren berrituko dutela San Migelen irudia.



Eguraldi txarra dela-eta, aldamiua hutsik egon da oraingo astean.

A.G.

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ESKORIATZA**
- Udaletxea 943 71 44 07
 - Udal bulegoak 943 71 45 32
 - Udaltzaingoa 943 71 44 07
 - Euskaltegia 943 79 21 68
 - Kultura etxea 943 71 46 88
 - Gizarte laguntzailea 943 71 31 36
 - Kirol etxea 943 71 53 28
 - Liburutegia 943 71 31 35
 - Luis Eceiza 943 71 53 56
 - Jose Arana Almen Ikastola 943 71 44 86
 - Almen 943 71 49 07
 - Museo Eskola 943 71 54 53
 - Axtroki 943 71 40 77
 - HUHEZI 943 71 41 57
 - Osakidetza 943 71 44 52
 - Telesko 943 71 49 17
 - Taxiak 943 71 40 59

- BESTELAKOAK**
- Eskualde ospitalea (Arrasate) 943 00 53 00
 - Gurutze Gorria (Bergara) 943 76 55 76
 - Ertzaintza (Arrasate) 943 79 71 99
 - Suhiltzaileak (Oriati) 943 79 28 00
 - Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15
 - Renfe (Gasteiz) 945 23 20 30
 - PESA (Arrasate) 902 10 12 10
 - Larrialdiak (Arrasate) 943 77 10 43
 - SOS Deiak 112

OHARRAK

GAIXO PSIKIKOEN GAIEN IKASTAROK

Eskualdeko Laguntza Taldeek eta Agufes-ek ezindu psikikoen familiakoendako eta zaintzaileendako ikastaroak antolatu dituzte. Informazio zabalagoa jasotzeko eta izena emateko: 943 71 31 36.

ERAKUSKETA

Drogak: *gizarte-gaia* erakusketa jarriko dute ikusgai, otsailaren 10etik 16ra, kultura etxean.

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA HORTZ KLINIKA

Eduardo Gorosari, 3-1. Esk. Tel: 943 71 47 36

TXUTXUMUTXUA



Xabier Montoiaren kontzertuak jende ugari batu zuen

Xabier Montoia idazle eta abeslari gasteiztarra Eskoriatzako gaztetxean izan zen, joan den zapatu gauean, bere taldearekin batera. Berrogeita hamarren bat lagun batu ziren Herztainak eta M-ak taldeen sortzaile izan zen abeslariaren doinuak entzuteko. Antolazailuek esan digute pozik daudela kontzertuak emandakoarekin; izan ere, Montoiaren musika estiloa ez da jendetza handiak batzen dituen estilo horietakoa. Datorren otsailaren 22an, bestalde, Betagarri talde gasteiztarrak emango du kontzertua gaztetxean. /A.G.

LABUR

Espainiako gerran desagertutako zortzi lagun herrian

Gaur, egubakoitza, batu dira lehenengo aldiz Espainiako gerran desagertutakoen sendi eta lagunak sortutako batzordeak. Batzorde horren helburua da Espainiako gerran desagertutakoen izen onaren alde lan egitea. Eskoriatzan, orain arte batu dituzten datuen arabera, zortzi lagun daude lurperatuta. Hala ere, adituaren esanetan, baliteke gorpu gehiago egotea. Horregatik, Eskoriatzako Udalak herritar guztiei laguntza eskatu die.

Herritar askok hartuko dute parte ikastaroetan

Herritar ugari eman dute izena Amuskak antolatu dituen ikastaroetan. Aurrerantzean, orain arte liburutegi zaharra egon den lekuan egingo dituzte. Berez, datorren astean hasi beharko liriteke ikastarook, baina oraindik ere liburutegiko materiala leku batetik bestera eramanez dutenez, behar bada, hemendik aste bira hasi beharko dituzte ikastaroriek.

Sukaldaritza ikastaroa, aldiz, datorren egunean bertan, otsailaren 6an hasiko da.

HUHEZIKO Praktiker, Europako jardunaldietan

Atzo (hilak 30) eta gaur (hilak 31), HUHEZIKO Praktiker ikerketa-guneak Europa mailako jardunaldietan parte hartu du. *Kudeaketa eta ezagutza* lelopean, Bidarten eta Donostian egin dituzte jardunaldiok, eta, Debagoieneko ordezkariak gainera, mundu osoko adituak izan dira han. Praktiker ikerketa-gunea Iparraldeko Graphos-Estia unibertsitatearekin lankidetzan hasi zen orain dela urte bi, eta gaur arte hainbat ikerlan egin dituzte lankidetzan.

EDURNE



ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



Aranburuzabala 42 Tel.: 943 71 51 54 ESKORIATZA

Elektroterapia.

ESKORIATZA

Tfno 714 845



ERRETEGIA

MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita ESKORIATZA

NAIRA Taberna

Aranburuzabala 16 Eskoriatza. 943 71 46 71

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

Santa Ageda egunean eskean irteteko ohitura errekuiperatzeko ahaleaginean

AINTZANE GARDOKI

Herriko erretiratu elkarteko lagun batzuei kantuan eta eskean baserri baserri joateko ideia bururatu zitzairen, aspaldiko ohitura berreskuratu guran. Batzuek baietz eta beste batzuek ezetz, bertan behera uztekoan dira Santa Agedaren izenean kantuan egiteko deia.

Toki Eder erretiratuen elkarteko presidente Benedikto Elkorobarrutiari bururatu zitzaion Santa Ageda egunean kantuan etxex etxex joateko ideia. "Aspaldiko ohitura

izan da hori gurean. Lehenago, soldadutzara joaten ziren herriko mutilok ospatzen genuen Santa Ageda eguna. Gero, eskoriatzarrakin batera hasi ziren Santa Ageda ospatzen, eta orain, hori ere ez!", esan digu Benediktok. "Gazteak ez garela badakigu, baina ohitura berreskuratzeko gogorik ez zaigu falta; beste barik".

Benediktoren ingurukoek, ideia zena egia bihurtu guran, gogo handiz eta ilusioz hasi ziren lanean; herriko lagunak animatu, Santa Ageda kantua letraren bertsoak han eta hemen bilatu, eta beste egin dituzte. Tartean, Garro

jauregiak su hartu zuen, eta Toki Eder ezin izango zutela erabili-eta, animuek behera egin zuten.


IRTENGO EZ DIRELAKOAN DAUDE

Erretiratu guztiak ez dira bat etorri ekimenarekin. Batzuk Santa Ageda ospatzearen alde agertu diren neurrian, beste batzuk guztiz kontra azaldu dira: nagusiak direla, kantuan ez dakitela, lotsa dutela... adierazi digute. Azkeneko asteotan, zeresan handia eman du gai horrek herrian; baina badirudi aurten, behintzat, erretiratuek ez dutela kantuan egingo Santa Ageda egunean.

Erretiratuek izandako ekimena zer iruditzen zaizu?



ROSA URRETA
langilea



INA ALONSO
langilea



D. ELKOROBARRUTIA
langilea



KOLDO AZKOITIA
langilea

Niri ideia izugarri polita iruditzen zait. Helburu polita da antzinako ohitura zahar bat berreskuratu gura izatea. Herrian giro polita ipiniko luke, eta elkarrekin egun ederra pasatzeko aukera ezin hobea da, gainera.

Ez neukan horren gaineko berririk, baina oso ondo iruditzen zait. Neguan ez dago zer egin handirik hemen, eta gure nagusiek horrelako ekimenak bultzatzea ezin hobea dela pentsatzen dut. Animo!

Ez nekien holako asmorik zutenik erretiratuek, baina oso ezusteko atsegina hartu dut bultzatu gura duten ekimenarekin. Dena dela, nire ustez, erretiratuek hartu behar dute kantatzeko edo ez kantatzeko erabakia.

Oso ideia ona iruditzen zait erretiratuek horrelako ekimena izatea. Abesteko zalantzatan egi daude, baina nik animatu gura nituzke. Horrelako ekimenek herria bera alaitzen dute, baita eurak talde moduan ere.



Garazik egindako piropoa txapeldun!

Begiak zerua baino politagoak dauzkazu, irribarra itsasoa bezain indartsu, eta ni zugatik itsu. Piropo horrekin irabazi du Garazi Orobengoa gazteak Loramendi Literatura Lehiaketako saria. Hain zuzen ere, DBHko lehenengo zikloko Piropo Lehiaketan nagusitu da Garazi Orobengoa. Beraz, piropo asmatzaile ederra daukagu herrian! /A.L.

LABUR

Espainiako gerran desagertutakoen izena berreskuratzeko gertu dago Udala

Hilaren 27an, Espainiako gerran desagertutakoen eta fusilatuen izen ona berreskuratzeko asmoz, batzarra izan zen Arrasaten. Joxerra Agirreurreta ere han izan zen. Gatzagari dagokionez, orain arte egin diren ikerketen arabera, sei dira fusilatu edo desagertutakoak. Eta Gatzagako Udala gertu azaldu da kasuok eta aurrerantzean azal daitezkeen beste batzuk argi daitezen lan egiteko. Horretarako, udal txan fitxa batzuk egongo dira eskuragai; norbaitek 36ko gerraren gainean kontatzeko zerbaitek badauka, fitxa horiek bete beharko ditu.

ALDATZ

TABERNA

ESKORIASA



MIRENTXU
TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

Calderería
Cantera, S.L.
ALUMINIOAK

Zurgintza alumiiioa erabilia

Aingeruardakoa ibilbidea z/g
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21
ESKORIASA

aroztegia
Leintz

Aingeruardako ibilbidea
Tel.: 943 71 49 36
ESKORIASA (Gipuzkoa)

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

OTZETA
TABERNA • JATETXEA

- Eguneko menua
- Palter konbinatuak
- Bokadiluak
- Pintxuak



Aranburuzabala 7. Tel.: 943 71 51 90 ESKORIASA

LUIS EZEIZA LHI
2-12 urte bitartekoentzat



KURTZEBARRI BHI
12-14 urte bitartekoentzat



MATRIKULA EPEA: otsailaren 3tik 15era arte



- Integratzailea: euskal kultura garatzen du, eta beste kultura batzuk era egokian geureganatu eta garatzen ditugu.
- Pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditugu.
- Sortzailea eta autonomia.
- Ikastetxeen arteko loturak sustatzen ditugu.




Telefona / Faxe: 943 71 49 38
e-maila: 012065aa@hezkuntza.net

Telefona / Faxe: 943 79 57 40
e-maila: 012945aa@hezkuntza.net



GOIESKOLA

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa



baikara

Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa

PAUSOKA HAUR ESKOLA

2003-2004 ikasturterako izena emateko epea zabalik

Izena ematea: otsailaren 3tik 14ra, 09:00etik 11:00etara eta 16:00etatik 18:00etara

BELORRIETA 8an GAUDE. 943 77 03 77

TALDE EGOKITUAK

- 0tik 3 urtera bitarteko haurrak talde egokituetan
- ORDUTEGI ZABALA
- Goizeko 7:30etik 18:00ak arte
- Orduategia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAK

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta
- EGUTEGI ZABALA
- Egutegi eskolarraz gain, Gabonak, Pazko astea eta uztailaren 24rarte zabalik.

LOGELA



PAUSOKA HAUR ESKOLA
Euskaraz hazi eta hezi

GRUPO RKUZ 1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

